



# **LAZKAO UDALERRIKO ONDASUN HIGIEZIN** **HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

## **SARRERA**

2016ko irailaren 20an, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen udalerrri honi dagozkion hiri-izaerako ondasun higiezinaren lurzorua eta eraikuntzen balioen ponentziaren berrikuspena. Ponentzia horretan oinarrituta lortu ziren hiri-izaerako ondasun higiezinaren katastro-balio berriak eta horiek 2017ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duenez, katastroko balioak Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo dagozkion udalak eskatuta. Aldaketa horiek gauzatuko dira baldin eta hirigintza-plangintzak edo beste inguruabar batzuek agerian uzten badute funtsezko desberdintasunak daudela udalerrian dauden ondasun higiezinaren katastroko balioen eta merkatu-balioen artean, edo udalerriko zonaren batean edo batzuetan dauden ondasun higiezinaren merkatu-balioen artean.

Balio Ponentzia onartu zenetik, udalerriko hirigintza-plangintzan lurzorua eragari eragiten dioten aldaketak egin dira, eta horiek, lurzorua eraginpeko ondasunen merkatu-balioan eragina dute.

Horregatik guztiagatik, aldatu egin da udalerrri honetako hiri-izaerako ondasun higiezinaren lurzorua eta eraikuntzen balio ponentzia.

## **XEDEA**

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldatu egin da udalerriko Balore Ponentzia, honako inguruabar honen ondorioz:

- **Lazkaoko «C.A.F.» 1. Hirigintzako Esku Hartze Areari dagozkion Hiri Antolaketako Arauen aldaketa. Diputatuen Kontseiluak, 2012ko uztailaren 27ko batzarraldian onartutakoa. (GAO 2012-09-21).**
- **Lazkao eta Beasaingo udalerrien arteko mugalerroa eta mugarriak onartzea, Lazkaoko Udalak 2011ko maiatzaren 12ko udal batzarrean eta Beasaingoak 2011ko maiatzaren 13koan onartutakoak. (GAO 2011-07-19).**



## **EGIN BEHARREKO ALDAKETAK**

Aipatutakoaren ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugaketa aldatzen da.**
- 2.- 802, 804 zona katastralen mugak aldatzen dira.**

### **I ERANSKINA**

**Hirilurraren mugatze planoak.**

### **II ERANSKINA**

**Zona katastralen planoak.**